

## JOKALARI GUZTIEKIN HUELVARA

Huelvatik zuzenean joango dira gorritxoak Coruñara, eta Aguirrek jokalaria guztiak eraman ditu Andaluziara. Pablo Garcia soilik falta da, Urugain baita, min hartuta.



LANDER F. ARROIABE / ARGAZKI PRESS

Osasunako jokalaria, atzo, Huelva bidean.

## KOPA DEFIZITARIOA DA

Finalerdietara iritsi eta bazkideei ordainarazi arren Osasunarentzat Kopa defizitarioa dela esan zuen atzo Patxi Izko presidentek. Finalak irabaziak ekarriko lituzke, halere.

## JUAN CARLOS UNZUE OSASUNAKO ATEZAINA

# «Kopakoa aukera historikoa da, eta inoiz baino ilusio handiagoa dut»

Asier Legarda-ereño | IRUÑA

Espainiako Ligako atezainik beteranoena da Juan Carlos Unzue. Hamasei urteko ibilbidearen ostean, aurreko denboraldian itzuli zen Osasunara. Denboraldi hau lehen atezain gisa hasi zuen, iragandakoa bezalaxe, baina Sanzolek tokia kendu zion berehala. Halere, zortekoa da, Espainiako Kopak «bizirik dagoela sentitzen jarraitzeko aukera» eskaini baitio. Finalerako azken oztipoa gaintu zain, ilusioz gainezka da Unzue.

## ■ Aukera historikoa benetan, ezta?

Bai, garbi dago. Osasuna inoiz ez da iritsi Kopako finalera. Are eta politagoa egiten du horrek.

## ■ Kopa zuretzat berezia dela aitortu duzu sarri.

Eta egia da. Bartzelonarekin bat irabazi nuen, eta Osasunarekin finalerdietara iritsi nintzen orain hamabost urte. Gainera, hasiera hartan ezagun egiteko ere balio izan zidan Kopak. Horrexegatik da berezia.

## ■ Horrexegatik eta behar bada azken aukera izango delako zuretzat, ezta?

Noski, hamabost urte geroago berriz Kopako finalerdietan egotea esanguratsua bezain pozgarria da niretzat. Eta orain, beti amestutako egoera baten atarian nago, neure hiriko taldearekin final bat jokatzea itzela litzateke eta, benetan diot, inoiz baino ilusio handiagoa daukat.

## ■ Denboraldi honetan jokatu izana ere Kopari eskertu behar diozu, gainera.

Erabakigarria izan da; atezain gisa bizirik nagoela sentitzeko aukera eman dit. Ordezkoekin ala hasierako hamaikakoan izan, nire jarrera ez da aldatzen. Lanean jarraitzen dut, eta, zelaian egonda bezala ez izan arren, taldekideei laguntzen saiatu izan naiz beti. Halere, pozgarria da entrenatzaileak

asko jokatzen ez dugun jokalaria ere aintzat hartzen gaituela ikustea.

## ■ Kanporaketak gaintu ahala, ezohikoek jokatzea aurkariari abantaila ematea dela esaten duenik ere bada.

Aldagela honen arrakasta hortxe dago. Entrenatzaileak jokariaren artean alde nabarmenik ez dela esaten du, eta esan bakarrik ez, haren erabakiek ere hala pentsatzen duela erakusten dute. Aurreko kanporaketetan hori dela berretsi dugu, eta jokalaria guztiak pozik dauzka Aguirrek. Gainera, Kopan ondo aritzen dena Ligan ere jarri ohi du, eta denak erne egotea lortu du. Txalotzekoa da.

## ■ Ekainean kontratua amaituko zaien zenbait jokalarirekin negoziatzen hasi dira dagoeneko. Zuri ez dizute esan ezer; amaieraren beldur?

Une honetan ez dut pentsatu ere egin nahi futbola uzteko aukera horretan. Fisikoki ondo nago, eta, gutxienez, beste urte bat jarraitu nahiko nuke. Dena den, nire etorkizunaren berri ekaina arte ez jakitea ez litzaidake gustatuko. Zuzendarien erabakia, onerako ala txarrerako, onartuko dut. Nahiago nuke jarraitu, baina ezin bada, ez dago arazorik. Beti eskertuko diet Osasunari eta Angel Martin Gonzalez nigan jarritako fedea. Baina beste talde batera joan behar badut ere, ez dut arazorik izango. Jarraitu nahi dut.

## ■ Zozketaren emaitzarekin pozik azaldu zineten, baina Betis eta Atletico Madril kanporatu ditu, besteak beste, Recreativok.

Nik badakit ez dela izango neurraketa erraza. Teorian, aurkaririk errazena egokitu zitzaizgun, baina eurek ere horixe pentsatuko zuten gure kontra jokatzea egokitu zitzaizela jakin zutenean. Recreativok gabe-

ziak dituela ukatzerik ez da, baina sendotasuna ere badute, eta ez da erraza haiei gola sartzea. Jokalariek jarrera itzela erakusten dute beti, eta taktika aldetik oso lan ona egiten dute. Inork ez dezala pentsa joanekoan kanporaketa erabakita utz dezakegunik.

## ■ Huelvan gol bat sartzea da, orduan, helburua.

Oso garrantzitsua litzateke. Recreativo eraso egitera behartu beharra dugu, atzealdean zuloak aurkitu ahal izateko.

## ■ Zein emaitza jo daiteke ontzat?

Ez galtzea eta golen bat sartzea. Noski, 0-2ko bat askoz hobea litzateke, baina Xerezzen Sevillaren aurka lortutako 1-1ekoa begi onez hartuko nuke Huelvan ere. 0-0ekoa baino askoz emaitza hobea da 1-1ekoa.



ETORKIZUNA

«Ondo nago, eta, gutxienez, beste urtebete jarraitu nahi dut; Osasunan bada, hobe»

## ■ Huelvatik zuzenean Coruñara zoazte. Kopa ahazteko betarik izango al duzue?

Huelvan bezalaxe irabaztera zelairatuko gara Riazorren. Ez dut uste burua Kopan genuelako galdu genuenik Vila-realen aurka Ligan.

## Itzulerako lehia bazkideek ez dute ordaindu beharrik izango

Asier Legarda-ereño | IRUÑA

Sevillaren aurkako final-laurdenetako lehia ordainarazi egin zela, Osasunako bazkideak haserre zituen Patxi Izko presidentek. Espainiako Kopan aurrera jarraituz gero bazkideei oparitzo bat egingo ziela agindu zuen Izkok, eta bere hitza bete du: bazkideek ez dute ordaindu beharrik izango finalerdietako partida ikusteko.

Igandean, Sadarren, Huelvarako autobusa doan jarriko zuela jakinarazi zuen Izkok, eta, agindutako oparitzo hori zelakoan, zaleek txistuka erantzun zuten bozgorailuetatik doako autobus bidaiaren berri ematen zuten bakoitzean. Atzo oparitzo hori soilik ez dela izango baieztatu zuen Izkok, baina bazkide ez diren ohi baino pixka bat gehiago ordaindu behar dute finalerdia ikusteko.

<p><b>LARDIZABAL</b> Herri-Eskola</p> <p>Sartalde, z/g. • AIA Telefona: 943 83 41 07 Faxa: 943 83 44 96 e-mail: lardizabal@teletel.net</p>	<p><b>ANDATZA</b> Herri-Eskola</p> <p>San Pedro auzoa, z/g. • AIA Telefona: 943 13 39 96 e-mail: 012020aa@hezkuntza.net</p>	<p><b>ITURZAETA</b> Herri Eskola</p> <p>Sahatsaga, 12 • 20808 GETARIA Telefona: 943 14 07 29 Faxa: 943 14 07 29 e-mail: 012073aa@hezkuntza.net</p>
<p><b>Zaragueta Eskola</b> ORIO</p> <p>Hondartza bidea, z/g. • 20810 ORIO Telefona: 943 89 40 52 Faxa: 943 89 41 65 e-mail: 012137aa@hezkuntza.net</p>	<p><b>Orokieta Herri-Eskola</b></p> <p>Araba Kalea, 56 • 20800 ZARAUTZ Telefona: 943 83 33 67 Faxa: 943 89 43 17 e-mail: 012288aa@hezkuntza.net</p>	<p><b>Lizardi Institutua</b></p> <p>Araba Kalea, 18 • 20800 ZARAUTZ Telefona: 943 83 43 50 Faxa: 943 83 05 60 e-mail: 012292aa@hezkuntza.net</p>
<p><b>HAUR HEZKUNTZA • LEHEN HEZKUNTZA • DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA • BATXILERGOA • SELEKTIBITATEA • GOI MAILAKO LANBIDE HEZIKETA (Turismoa) • ERDI MAILAKO LANBIDE HEZIKETA (Markataritzako Teknikaria) • ...</b></p>		
<p><b>ESKOLA PUBLIKOA</b> INTEGRATZAILEA BERRITZAILEA KALITATEZKOA ... <i>guztiona!</i></p>		
<p><b>AUREMATRIKULA</b> Otsailaren 3tik 14ra</p> <p>■ ■ ■ ■ ■</p> <p><b>INFORMAZIO ZABALGOA IZAN DEZAZUEN HURBIL ZAITEZTE</b></p>		